

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuaren 1574/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 24koa; Bizkaiko Foru Aldundiko ekainaren 2ko 47/2020 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraren duen epaimahaiko kideak izendatzen dituen. Foru dekretu horren bidez onetsi egiten dira 2020. urtean zehar Bizkaiko ikerketa arkeologiko eta paleontologikoak sustatzeko foru diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta deialdia.

Ekainaren 2ko 47/2020 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoko 2020. urtean zehar ikerketa arkeologiko eta paleontologikoak sustatzeko foru diru-laguntzen deialdi publikoa onetsi du (117 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2020ko ekainaren 22koa).

Aipatutako foru dekretuaren 11. oinarrian ezartzen denez, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Azaldutakoa dela bide, artikuluko horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiak eta gainerako baterako xedapenek Euskara, Kultura eta Kirol Foru Saileko titularrari ematen dizkieten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiko ekainaren 2ko 47/2020 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraz gain, Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan, ebazpen-proposamena egin eta aurkezteko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea. Honakoak izango dira, beraz, epaimahaikideak:

- Epaimahaiburu titularra:
 - Andoni Iturbe Amorebieta
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua:
 - Xabier Arauzo Uriarte
Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.
- Epaimahaikide titularrak:
 - Zuriñe Antoñana Ozaeta
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
 - Iñaki García Camino
Bizkaiko Arkeologi Museoaren zuzendaria.
 - Abdona Gil Abad
Eusko Jaularitzaren Kultura Ondarearen zentroko arduraduna.



- Ordezko mahaikideak:
 - Roberto Laso Gutiérrez Solana
Bizkaiko Foru Aldundiko Esku-hartze Arkitektonikoaren Atalean monumentuen zaharberritzeaz arduratzen den arkitektoa.
 - Milagros Esteban Delgado
Arkeologiako doktorea (Deustuko unibertsitateko irakaslea).
 - Diego Gárate Maidagán
Arkeologo eta «Ramón y Cajal» Ikertzailea.
- Idazkari titularra, botorik gabe:
 - Jaione Larrea Nájera
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.
- Ordezko idazkaria:
 - Nahikari Gil Elorduy
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.

Bigarrena: Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena: Foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. – Indarrean jartzea

Honako foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko uztailaren 24an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA